

HERNANIKO ERMITAK





ANTXON AGUIRRE SORONDO OMENEZ

EGILEA

JON OÑATE LIZARRALDE

ITURRIAK

Sailetako argitalpenak. Antropologia-Etnografía 11. (1994) 9.-70. or.
ISSN: 0213-0297
Donostia: Eusko Ikaskuntza

ITZULTZAILEA

GARLO (Itzulpen Zerbitzua)

ANTOLATZAILEA

HERNANIKO SAN JOAN KONPARTSA
2021ko Ekainaren 27a



HERNANIKO ERMITAK

Hernaniko San Joan Konpartsako kideok 27 urte daramatzagu sanjoanetan hainbat ekitaldi antolatzen, eta ekainaren 27an, zehazki, gure herriaren historiarekin, ohiturekin eta halakoekin zerikusia duten gaiak ezagutarazten saiatzen gara.

Hasiera-hasieratik, laguntzaile fina izan genuen eginkizun horretan Antxon Aguirre Sorondo. Gaiak aztertu ahal izateko behar beste dokumentu eta aholkuemateko prest egoten zen beti.



ANTXON AGUIRRE SORONDO

Etnografo gipuzkoarra, 1946ko martxoaren 4an jaioa eta 2014ko urtarrilaren 30ean zendua.

Ingeniaritza tekniko-industrialean tituluduna. Euskal Telebistarako egindako «Lanbide tradizionalak» sailaren zuzendaria (lehen hamahiruatalak 1996ko apirilean hasi ziren ematen; hurrengo hamahiru atalak, berriz, 1999ko urtarrilean). Koldo Lizarralderekin batera, 1992ko José Miguel de Barandiaran bekaren taldeko kidea, Gipuzkoako ermitak aztertzeko; 2000. urtean argitaratu zen liburua. Trebiñuko eta Argantzoneko udalek Eusko Ikaskuntzarekin batera 2003an eta 2005ean bekatutako ikerketa taldearen kide zuzendaria, Trebiñuko etnografiari buruzko hainbat alderdiri buruz jarduteko; lehenengo ekarpenak argitaratuta daude jada, Etnografía del Enclave de Treviño I (2005) liburuan.

Kongresu eta mahai-inguru askotan hartu zuen parte, eta hitzaldi andana eman zuen. Bidaiari nekaezina, munduko lekurik baztertuenetan ibilia. Aldizkari eta komunikabideetan ohiko kolaboratzailea. Gipuzkoako eta Euskal Herriko kulturarekin lotutako gaiei buruzko artikulugilea, besteak beste honako aldizkari hauetan:Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, Eusko Ikaskuntzako Sailetako argitalpenak, Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria (RIEV), Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen Buletina, Eusko Folklore Urtekaria, Ohitura, Dantzariak, Munibe, Deba, Plentzia, eta abar. Aranzadi Zientzia Elkarteko, Eusko Ikaskuntzako, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko eta Etnikerreko kidea. Etniker Euskalerria taldeetako Eskualdeen arteko Batzordeko kidea. Errotak Zaintzeko eta Aztertzeko Elkartearen (ACEM) fundatzailea eta lehen presidentea. Nabarmentzekoa da 1987an ikerketa antropologiko onenaren Marqués de Lozoya saria jaso zuela,Albeitares y herradores izeneko lanagatik. Hernaniri eta Euskal Herriko beste hainbat udalerriri buruzko liburu eta artikulu ugariren egilea; besteak beste, honako hau idatzi zuen:

HERNANIKO ERMITAK
Honako honetan argitaratua:
Sailetako argitalpenak. Antropologia-Etnografía 11. (1994) 9.-70. or.
ISSN: 0213-0297
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Omenaldi txiki bat egiteko asmoz, hementxe duzue berak idatzitakoa. Ata! batzuetan, ohartxoren bat edo beste erantsi dugu, San Joan Konpartsak aurrez jada argitaratu duelako Antxonek berak idatzitako lanik, edo beste arrazoiren batengatik.

Hernaniko San Joan Konpartsako kideontzat ohore handia izan da zu ezagutzea, Antxon, eta ez dugu sekula ahaztuko nola egoten zinen beti laguntzeko prest.



GIPUZKOAKO HERNANI HERRIAK BERE HISTORIA LUZEAN ZEHAR BERE JURISDIKZIOAN IZAN DITUEN ERMITEI BURUZKO IKERKETA HISTORIKOA

Lan honetan, ermiten alderdi esanguratsuenak azalduko ditugu: ezaugarri arkitektoniko eta ikonografikoak; erritualak eta gurtzak;ermitetan aritutako serora, ermitau etakontu-hartzaileak; jatorria eta historia; obrak eta ondasunen kudeaketa...

Hemen jasotako bederatzi ermitetako batzuen arrastorik ez dago gaur egun, eta batzu-batzuk gogoratu ere ez ditu egiten jendeak. Artxiboetako agirietan baino ez ditugu aurkitu haiei buruzko lekukotzak. Idazlan honek, beraz, Hernaniren iraganari buruzko alderdi batzuk ezagutaraziko dizkizu, irakurle, ahanzturaren hautsetan zeudenak, eta niri behintzat, ikertzaile gisa, jakin-mina piztu didatenak.

Denboraren joanarekin pentsamoldea nola aldatu den ikusteko, hona hemen Hernaniko Udalak 1769an Gipuzkoako Probintziari (egungo Diputazioari) bidalitako mezu baten testua. Gipuzkoako agintaritzak galdera bat egin zion aurrez Hernaniko Udalari: zer ermita kendu beharko liratekeen herritik, ekonomikoki behar besteko zuzkidura ez zutelako, duintasunez mantentzeko baldintzak betetzen ez zituztelako, edo bestelako arrazoiengatik.

Hona hemen Hernanitik bidalitako erantzuna:

"En respuesta devo decir a Us. que tres Hermitas ay en mi jurisdicción, la de Nuestra Señora de Cicuñaga, Sta. Bárbara, el humilladero de Santa Cruz y ninguna de ellas tengo por combeniente suprimir, por la devoción que a todas ellas tiene el pueblo de esta villa y los de su circunbezindad, especialmente a la de Cicuñaga. La de Santa Bárbara que está en una eminencia sirve para llamar con la campana cada vez que aya amenaza de truenos o otra nuve de tempestad, para que comienzen las campanas de la Parroquia a lo mesmo, y el humilladero derrivose aora dos años para la rectitud del Camino Real de Correos y Coches y se trasladó a poco trecho del parage donde estaba, habiendo habida gran resistencia en los vecinos para que no se moviese ni mudase de suantiguo parage, pero por fin conbinieron en su traslación a donde oy está, conociendo que importaba poner en rectitud el Camino Real y se ejecutó con lizenzia de el ordinario de este Obispado, por estos motivos hallo por comveniente la conservación de las expresadas tres hermitas".

(Hernaniko Udal-Artxiboa E.4.3.1.5)

Garbi dago gaur egungo beharrak ez direla ordukoak bezalakoak, eta herriaren espiritualtasuna ez dela adierazten duela bi mende bezala, baina, zalantzarik gabe, premiazkoa da, inoiz baino premiazkoagoa, gure ondarearen lekukotza baliotsu hauek zaintzea; izan ere, galtzen uzten baditugu -bakoitzaren sinesmenak edo sinesmen ezak alde batera utzita-, mendez mende lortutako naretasuna eta zentzua ezagutu eta ulertu gabe utziko genuke etorkizuna.

Horiek esanda, has gaitezen Hernaniko ermitak parametro historiko eta etnografikoen bidez aztertzen.



METODOLOGIA

Hiru pauso eman genituen langintza honetan:

1. ZEGOEN BIBLIOGRAFIA AZTERTU.

2. ARTXIBOAK ARAKATU (PARROKIETAKOAK, UDALETAKOAK ETA PROBINTZIETAKOAK) ETA LANDA-LANA EGIN.

3. LIBURUA IDATZI.

Ikus ditzagun fase horietako bakoitzaren inguruko xehetasunak:

1. ZEGOEN BIBLIOGRAFIA AZTERTU.

Ez dugu topatu monografikoki ermitei zuzendutako libururik.

2. ARTXIBOAK ARAKATU.

Hernaniko Udal-Artxiboa, Iruñeko Elizbarrutiaren Artxiboa eta Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa sakonki aztertu ditugu. Oñatiko Protokoloen Artxiboan, bestalde, oso informazio baliotsua jaso dugu, Hernaniko herriari buruz dauden paper sortetan.

LANDA-LANA

Hainbat egunez, azken ermitauen senideak elkarrizketatzen aritu gara, saio luzetan, haiek izango baitira, ziurrenik, halako kontuei buruzgehien dakitenak.Inguruko baserrietako gizon-emakume urtetsuengana ere hurbildu gara, eta horrek beste iturri batzuen bidez eskuratutako datuak zabaltzeko eta egiaztatzeko aukera eman digu.

3. LIBURUA IDATZI.

Liburua idazteko orduan, gaia modu atseginean azaltzen ahalegindu gara -zorroztasun zientifikoari eutsiz, betiere-, ahalik eta jende gehienak goza dezan berau irakurtzen. Zeuk erabaki beharko duzu, irakurle, helburua lortu dugun edo ez. Han-hemengo testuak aukeratu ditugu, gaia ikuspegi ezberdinetatik jorratzeko asmoz: Elizaren adierazpenak, herritarrek eta serorek ermitarako diru puska bat utziz egindako testamentuak, bitxikeria bat edo beste...


Aukeraketa egiteko orduan, interes dokumentala izan dugu irizpide. Ez ditugu aipamen gehiegi sartu nahi izan, ez eta luzeegiak ere, azalpenak gehiegi ez astuntzearren. Funtsean, azken bost mendeotako hernaniarren bizimoduari buruzko ikuspegi orokor bat eskaini nahi izan dugu ermiten inguruko kontakizun honen bidez.

Ermita bakoitzari dagokionez, alderdi hauek zehaztu ditugu:

IZENA: Ermitaren titulua eta izena.

PARROKIA: Zer parrokia-elizaren mende dagoen edo zegoen.

KOKAPENA: Ermita bakoitza ahalik eta zehaztasun handienarekin lekutzen saiatu gara. Horrez gain, itsasoaren



mailatik gora zenbat metrora dagoen adierazi dugu, eta koordenatuak ere eskaini ditugu (longitudea eta latitudea). Datu horiek 1/50.000 eskalako mapa geografiko-katastraletatik atera ditugu.

SARBIDEA: Ermitara iristeko zer bide hartu behar den. Ermitatxoa jada desagertuta dagoen kasuetan, nola iristen zen bertara.

DESKRIBAPENA: Ermita bakoitzaren ezaugarri arkitektoniko nagusiak.

EGOERA: Zer-nolako egoeran dagoen gaur egun -oraindik zutik dauden ermiten kasuan-.

IKONOGRAFIA: Gaur egun dauzkaten edo garai batean zeuzkaten pieza artistikoak -halakoen berririk izanez gero-.

ELIZKIZUN, ERRITU ETA OSPAKIZUNAK: Nahiago genuke ermitetako erritu eta ospakizunei buruz datu gehiago bildu izan bagenitu, baina daukagun informazio apurra besterik ezin dizuegu eman; testu historikoetatik eta elkarrizketatu ditugun herritarren ahotik jasotakoa, alegia.

HISTORIA

JATORRIA: Gure ikerketa artxibistiko eta bibliografikoan oinarrituz, ermiten «biografia» idatzi dugu. Aukera izan dugun guztietan, gainera, ermitaren eraikuntzarekin lotutako inguruabarrak zehazten ere ahalegindu gara.

PATROIAK: Ermitak kudeatzeko eginkizuna udalek, partikularrek edo biek izaten zuten. Ermita bakoitzaren kasuan, patroia zein zen zehaztu dugu.

SERORAK ETA ERMITAUAK: Ermita gehienetan, diakonoa edo diakonisa egoten zen; ermitau deitzen zitzaien gizonezkoei, eta serora emakumezkoei. Eskuratu dugun informazioan oinarrituz, haietako bakoitzaren izen-abizenak adierazi ditugu, eta zein urtetik zein urtera aritu ziren lanean. Beste horrenbeste egin dugu maiordomo edo kontu-hartzaileekin ere, halakoen berri izan dugun kasuetan.

KONPONKETA-LANAK: Ia ermita guztietan egin zituzten egitura hobetzeko lanak. Batzuetan, behin bakarrik, beste batzuetan, gehiagotan; obra handiak batzuetan, txikiak besteetan. Halako obrei buruzko agiriak aurkitu ditugun kasuetan, daturik aipagarrienak bildu ditugu (obren xedea, kostua, arduradunen izen-abizenak, eta abar).


JABETZAK: Ermita askok beren jabetzako ondasunak izan zituzten -legatu edo dohaintza ekonomikoetatik etorriak-, bai eta lantzeko lursailak ere. Hasteko eta behin, bereiz ditzagun ermita, otoizlekua eta baseliza.

ERMITA: Kapera edo elizatxoa, gehienetan biztanlerik gabeko inguruetan kokatuaeta gurtza etengabea izaten ez duena.

OTOIZLEKUA: Herrien sarreran edo irteeran eta bide-bazterretan eraikitako kapera modukoa, barrualdean gurutze edo irudiren bat duena.

BASELIZA: Parrokiatik urrun samar zeuden baserri edo etxe multzoen artean eraikitako elizatxoa, bertan herritarrei arreta espirituala emateko.


HERNANIKO
ERMITAK


SAN SEBASTIAN
San Juan y San Sebastian
6
2
ASTIGARRAGA
LASARTE
San Martin
San Agustin
4
Sta Barbara
5
3
Sta Cruz
1
Ntra Sra Zikuñaga
URNIETA
HERNANI
Rio Urumea
San Antonio de Ereñozu
8
Onyi
7
Santiago
9
Adarra
0 1 Km.
ARANO
ELDUAIEN



1 ZIKUÑAGAKO AMAREN ERMITA

Eusko Ikaskuntzak emandako laguntza bati esker, idazlan honen egileak (Antxon Aguire Sorondo) ikerketa sakona egin zuen Zikuñagako Amaren ermitaren inguruan. Lanak bigarren saria jaso zuen Hernaniko Herria ikerketa-lehiaketan.

SAN JOAN KONPARTSAREN OHARRA:
1999ko sanjoanetan, Antxon Aguirre Sorondok berak ermita honi buruz idatzitako liburuxka banatu zuen San Joan Konpartsak. Urte batzuk geroago, 2016an, Jose Luis Aperribai Hernaniko erretoreak Zikuñagako Ama Kapera liburua argitaratu zuen, eta ermitaren historia jaso zuen bertan.

2 SASTIGAKO SAN MARTINEN ERMITA (Desagertua)

IZENA
San Martin.

PARROKIA
Hernaniko San Joan parrokia-eliza.

KOKAPENA
Florida auzoan zegoen, Hernaniko parrokia-elizatik zuzen abiatuta kilometro batera, Sagasti-zarra baserriaren ondoan. Sagasti-berri izenekoa duela lau bat hamarkada eraikia da. 1922an Sagasti-zarra baserrian jaiotako Jesús Artola Urrestarazuren esanetan, bere aitona Eduardo Mirandak -baserri horretantxe jaioa hura ere (1870-1952)- ez zuen ermita hori ezagutu, baina inoiz edo behin entzun omen zuen Donejakue bidea bertatik igarotzen zela, eta hain zuzen ere horregatik erromesei ostatu ematen zietela bere asabek.

Altitudea: 40 metro, itsasoaren mailatik gora.
Koordenatuak: x = 1º 43' 05" / y = 43º 16' 25"

SARBIDEA
Sagasti-zarra baserrira iristeko, Floridako San Jose parrokiaren ondotik igarotzen den errepidea hartu behar da, eta, handik 100 bat metrora, ezkerretara jo. Garai batean, Astigarragako Santiago-mendiko ermitaren ondotik joaten zen bide hori; Ergobin Urumea ibaia zeharkatu ondoren, Sastigako San Martinen ermitatik aurrera joz, Iturmendi, Buskando eta Balantxa baserrietatik barna barrualderantz jotzen zuen.

DESKRIBAPENA
Ermitaren atzealdean, hormez inguratutako lursail eder bat zegoen, eta oraindik ere badago. Sagasti-zarra baserria harlandu bikainez egindako etxe handi bat da -dirudienez, garai batean hiru familia ere izan omen ziren han bizitzen-. Handik 200 metrora, Iturrizulo iturria dago, bertakoen esanetan Hernani guztiko urik onenadariola.



EGOERA, IKONOGRAFIA, ELIZKIZUN, ERRITU ETA OSPAKIZUNAK

Ez daukagu horien berri.

HISTORIA

Hiru izen hartu ditu San Martinen omenezko ermita honek denboran zehar: Sastigako, Sastiako edo Sagastiyagako San Martinen ermita. Pentsatzekoa da sagasti hitzetik datorkiola izena. Ermitatxo honi buruzko lehenengo aipamena María López de Galarretaren testamentuan aurkitu dugu. 1529an hil zen emakumea, Martín Arano de Ayerdiren alarguna.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskribaua: Juan Martínez de Obanus. Leg. 910, fol. 61.)

PATROIAK

Patroiak elizen edo ermiten ondasunak kudeatzeaz arduratzen ziren; administratzeaz, alegia. Eraikuntza nork finantzatu zuen, huraxe izaten zen patroi. San Martinen ermitaren kasuan, erdi bana ziren patroi Sastigako oinetxearen jabea eta Hernaniko Udala. Udalaren izenean, hiru ordezkari aritzen ziren (gehienetan, alkatea eta bi erregidore). Aldian behin, bilerak egiten zituzten Udalaren ordezkariek eta oinetxearen jabeak, eta azken horren botoak hiru udal-ordezkarien botoek adina balio zuen. Serorak izendatzea, ermitan konponketa-lanak eginaraztea eta ermitarekin lotutako gorabeherak ebaztea zegokien patroiei.

1625ean, hauxe idatzi zuen Lope Martínez de Isastik ermita honen inguruan:

"San Martín de Sastia, iglesia antigua en la jurisdicción de Hernani, que la sirve una beata y el patrón es al presente el capitán García de Villaviciosa, natural de Lezo"
*(*LOPE MARTÍNEZ DE ISASTI. COMPENDIO HISTORIAL DE LA M.N. Y M.L. PROVINCIA DE GUIPUZCOA. Reedición de La Enciclopedia Vasca. BILBAO - 1972")*

Tarteka-marteka, izaten zen liskarrik patroien artean. Hala gertatu zen, adibidez, 1664an, San Martinen ermita serorarik gabe gelditu zenean. Izan ere, Sastigako etxearen jabea zenak, Catalina de Aramburu y Azelain andreak-Sorabillako Azelain etxearen eta jauregiaren jabea ere bazenak-, Luisa de Laguardia izendatu zuen serora; bere kabuz izendatu zuen, ordea, eta erregidoreak ez zeudenhorrekin ados. Gainera, Iruñeko Gotzaindegiaren fiskalak aurkaratu egin zuen erabakia.
(Iruñeko Gotzaindegiaren Artxiboa. Leg. 850/22)

SERORA KETA ERMITAUAK

Lehenengo serora, guk dakigula, CATALINA DE ORCOLAGA izan zen. 1585ean aritu zen ermita honetan.
(MURUGARRENZAMORA, Luis. HERNANI. 6. or. Donostiako Aurrezki Kutxa. DONOSTIA -1970-.)

MARIA MARTINEZ DE BERBAIO: 1647an ageri da.
(MURUGARRENZAMORA, Luis. Op. cit., 62. or.)

MARIANA DE ARISTIZABAL Y VILLAVICIOSA: Donostiarra zen. 1648ko azaroaren 12an izendatu zuten serora, María Martínez de Berbaio hiltzean. Aukeratu zutenean, patroiek egiaztagiria eskatu zioten Iruñeko gotzainari.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Sebastián de Sasoeta. Leg. 1153, fol. 230.)



1664ko irailaren 11ra arte jardun zuen serora Marianak; egun hartan, bere egitekoak bertan behera uzteko eskaera aurkeztu zuen, gaixo zegoela eta urtetsua zela etaezin zituelako lanak behar bezala egin.
(Iruñeko Gotzaindegiaren Artxiboa. Leg. 1061/1)

MARIA LOPEZ DE OYARZABAL: Oiartzuarra zen, «fama oneko dontzeila eta ohitura onen jabea». 1664ko irailaren 25ean izendatu zuten «San Martinen Basilika»-ko diakonisa, 38 urte zituela. Serora izateko aukeratu ostean, Gotzaindegiak zegokion titulua eman zion, eta baimen berezi bat ere bai, 40 urtetik beherakoa baitzen emakumea, eta aldi hartan gutxienez 40 urte behar baitziren serora izateko.
(Iruñeko Gotzaindegiaren Artxiboa. Leg. 1061/1.)

Eskaeran adierazi zuten premiazkoa zela ermita horretan serora bat egotea, «debozioak bultzatuta meza eske gerturatzen diren apaiz eta herritarrei erantzuteko».
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.6. Fol. 224 v.)

CATALINA DE ARAMBURU ELORMENDI: 1694ko uztailaren 24ko kontratu batean aipatu zuten aurrenekoz. Kontratu horren bidez, beste urtebetez luzatu zuen Ignacio de Echeverría hernaniarrari emandako mailegua, lau urteko behi bat eta bere bi hilabeteko kumea, alegia, Echeverríak zain zitzan. Etekinak erdi bana banatzen zituzten, bi urte lehenagotik egiten ari ziren bezala.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Miguel de Ipinza. Leg. 1262, fol. 127)

INES DE ECHEANDIA: Astigarragan jaioa. 1695eko urtarrilaren 3an izendatu zuten serora, Catalina de Aramburu hiltzean. Inésen aitak, Andrés de Echeandíak, kobrezko 50 dukat eman zizkion ermitari dohaintzan, inoiz beharra izanez gero konponketak egiteko.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.8. Fol.64 v.)

Alabaina, hitza eman eta gero, ohartu zen ez zuela dohaintza egiteko behar beste diru. Hortaz, biharamunean, urtarrilaren 4an, eskribauaren aurrean 20 erreal eman zituen, eta agindu zuen hurrengo urtean 15 ordainduko zituela, eta bi urte geroago beste hainbeste.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Antonio de Ayerdi. Leg. 1272, fol. 3.)

1702ko urriaren 23an, su hartu zuen ermitak. Orduan, herriko ospitalera joan zen bizitzera Inés de Echeandía. Sastigako San Martinen ermitako azken serora izan zen bera.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.8. Fol. 164)

KONPONKETA-LANAK

Ermita honetan egindako obrei buruz aurkitu ditugun lehen erreferentziak 1670ekoak dira. Urte hartako apirilaren 8an, sabaia konpontzeko haritzondo-zura eramateko erabakia hartu zuen Udalbatzak.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.6. Fol. 177)

Nolanahi ere, askoz garrantzitsuagoak izan ziren 1689an egindako obrak. 38 errealeko kostua izan zuten guztira (3 errealeko 10 jornal eta 8 errealeko enbor bat). Erdi bana ordaindu zuten kostu hori Hernaniko Udalak eta Juan de Ariztegui Urrutia kapitainak, Donostiako eta Hernaniko biztanlea eta Sastigako oinetxearen jabea zenak.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Miguel de Ipinza. Leg. 1257, fol. 125.)



1702ko urriaren 23an, astelehena, suak kiskali egin zituen Sastigako oinetxea eta ermita. Juan de Ariztegui kapitainak Kontzejuko kideengana jo zuen laguntza eske, eta ermita berreraikitzeko lanen gastuen erdia ordaindu zuten.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.8. Fol. 125 v.)

Azaroaren 12an,bere etxerako egurra ere eskatu zuen kapitainak. Hala, 6 goi-haga eman zizkioten (teilatuaren zurajean, gapirioak gainean botatzeko jartzen den haga handi eta luzeetako bakoitza da goi-haga), 4 frontal, eta «mendian ipinitako 450 gapirio-ukondo» -beraz,haren kontura moztuko eta eramango zuten egurra-.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.8. Fol. 127)

Horrez gain, hurrengo urteko otsailaren 11n, egurrezko 1.000 ukondo eman zizkioten Martindegi inguruetan. Kasu horretan, prezioa berak ordaindu zuen osotasunean.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.8. Fol. 133 v.)

Ordutik aurrera, ez da berriro Sastigako San Martinen ermitari buruzko aipamenik inongo dokumentutan agertzen. Ezta ere Iruñeko Gotzaindegiaren ordezkariak urtero bisitatzen zituen ermiten zerrendan ere -gotzaindegi horren mende baitzeuden Hernaniko ermita guztiak-.

Hortaz, 1702ko urriaren 23an piztutako suteak beharbada behin betiko suntsitu zuen elizatxo hau. Serorak bere garaian emandako 50 dukateko dotea Udalari itzuli zion kapitainak, eta ermitako zilarrezko kaliza bat eta meza-liburu bat berarentzat gorde zituen.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.8. Fol. 164.)

JABETZAK

Ermitak 1664an diakonisa berria izendatu zuenean, lanpostua lau urtez hutsik egon ondoren-halakoetan, askotan, ondasunen inbentarioa egiteko aprobetxatzen zuten abagunea-, Sastigako oinetxearen jabea zenak, Catalina de Aramburu y Azelayn andreak, ukatu egin zuen ermitak bere sagastiaren gainean inolako eskubiderik zeukanik.

Abenduaren 15ean, emakume harengana bitartekari bat bidaltzea erabaki zuten erregidoreek, gaia modu baketsuan konpontzen saiatzeko, eta, dirudienez, lortu ere lortu zuten, ez baita kontu horren inguruan beste inolako aipamenik inon ageri.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.6. Fol.233)

Alabaina, 1704an, Juan de Ariztegui Urrutia kapitainak, oinetxearen jabea eta ermitaren patroia zenak, berarentzat aldarrikatu zituen Karapoteko mendaterako bidean ermitak zeukan sagastiko 20 aleen erabilera eta gozamena. Joseph de Lazcaibar Balda abokatu tolosarrak, horri buruz kontsulta egin ziotenean, esan zuen kapitainak ohorezko eskubidea zuela sagasti horren gainean, baina ez jabetza-eskubidea.
(Hernaniko Udal.Artxiboa A.1.8. Fol. 164.)

Dohaintzei eta legatuei dagokienez, 1650eko agiri bat baino ez dugu aurkitu. Agiri horren bidez, Luis de Irigoyenek, udalerriko parrokiako benefiziaduak, zortzi errealeko zilarrezko 10 erreal utzi zituen testamentuan ermitarako, eta haren oinordekoek Mariana de Aristizabal serorari eman zioten diru hori.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Juan López de Araeta. Leg. 1089, fol. 342)



3 SANTA KUTZEKO OTOIZLEKUAREN ERMITA

IZENA
Santa Kutz. Hainbat izenez da ezaguna: Santa Kutzeko ermita, Santa Kutzeko otoizlekua, eta, batez ere, Elizatxo.

PARROKIA
San Joan Bataiatzailearen parrokia-eliza.

KOKAPENA
Egungo udaletxearen atzean dago (50 bat metrora), udaletxearen eta Leokako iturriaren artean, Portu auzora eramaten zuen bide zaharrean.

Altitudea: 25 metro, itsasoaren mailatik gora.
Koordenatuak: x = 1º 42' 45" / y = 43º 15' 51"

SARBIDEA
Mailadi batzuk igoz iristen da bertara.

DESKRIBAPENA
Bi isurialdeko teilatua duen eraikin txiki bat da. Harlanduxkaz eginda ditu paretak. Aurrealdean, hesi metaliko polit bat dauka, artisau-burdinez egina, erdian harrizko zutabe bat duela. Sarreran, atearen lekuan izan ezik, petril txiki bat dauka, kanpoalde profanoa eta barrualde sakratua bereiziz. Eskuinaldean, ur bedeinkatuaren ontzi xume bat dauka, erreten bertikalak dituena zizelkatuta. Teilatuan, berriz, burdin forjatuzko gurutze bat du, lirio-loreekin apaindua.

Harrizko bi zutaberen gainean bermatutako harlauza handi bat da aldarea. Presbiterioaren erdian, harrizko gurutze bat dago, zutabe baten gainean. Gurutzaduran, tailu bat dauka, ez oso landua, alde batean Ama Birjinaren irudia duela eta beste aldean San Joanena; oinetan, berriz, burezur bat ageri da.

Duela urte asko, itsulapiko metaliko bat jarri zuten paretan, dohaintzak bertan uzteko, baina jendeak ohitura zaharrari eusten dio, eta, garai batean bezala, lurrera jaurtitzen ditu txanponak, lehengo moduan, hala egiten baitzenlimosna-ontzirik ez zegoenean. Horma txiki batean, sarreran, 1974 data dago zementuan adierazita.

EGOERA
Oraingoz, egoera bikainean dago.

IKONOGRAFIA
Barrualdeak gaur egun duen itxura ez da garai batean zeukana. Iruñeko Gotzaindegiaren ordezkariak 1745eko



azaroaren 25ean egindako bisitaren harian idatzitako txosten xeheari esker dakigu hori, besteak beste hauxe adierazi baitzuen:

"El altar de esta Basílica está decente con su ara entera, aforrada con lienzo y sus dos manteles. Una de las columnas del retablo se alla desencajada de su puesto y necesita de composición. El cielo rasso que tiene está podrido años ha; todo el recado de decir misa se lleva a la Parroquia. No hay sacra, ni tablillas del lavabo y evangelios de San Juan; la villa es patrona y la basílica no tiene renta".
(Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa – Hernaniko Mandatuen Liburua, 1726-1849.)

Ez zieten ohartarazpen horiei kasu handiegirik egin, handik zortzi urtera konpondu gabe jarraitzen baitzuen erretaulako zutabeak. Hori horrela, zorrozki mintzatu zitzaien ordezkaria hurrengo bisitan: konpondu gabe jarraitzen zuen bitartean, ez zela ermita hartan mezarik esango; eta, esanez gero, eskumiku nagusia jasoko zutela zigor gisa.

Gure berriemaileen esanetan, azken gerraren garaian bonba bat erori zen inguruetan, eta kalte handiak eragin zizkion ermitari atxikita zegoen serora-etxeari. Denboraldi batez, biltegi modura erabili zuten eraikina, eta gero, eraitsi ondoren, Udalari saldu zioten orubea.

ELIZKIZUN, ERRITU ETA OSPAKIZUNAK

Ikusi dugun bezala, meza ematen zen ermitatxo honetan. Geroxeago aipatuko ditugun beste iturri batzuen arabera, bestalde, prozesioak egiten zirela ere badakigu. Iruñeko Gotzaindegiaren ordezkariak, 1771ko irailaren 12an bisita egin eta gero, hauxe idatzi zuen mandatu-liburuan:

"Iten informados de que el cavildo eclesiástico tiene obligación de celebrar treinta y siete misas rezadas de fundación antigua en la hermita de Santta Cruz las trece de ellas en otras tantos días festivos de primera clase y que a más de que la referida hermita no tiene capacidad pa. acomodarse la mucha gente que concurre a oir dichas misas, por la situación y parage en que se alla de la maior diversión del pueblo, se exponen los fieles a no asistir con la atención devida, exponiéndose a quebrantar el precepto eclesiástico, mandamos que dicho cavildo eclesiástico celebre de aquí adelante las referidas treinta y siete misas en el altar del Santo Cristo de su parroquia y que assí por lo referido como por otras justas causas que nos mueben, ningún sacerdote celebre missa en dicha hermita de Santta Cruz, ni en la de Santa Bárbara, pena de excomunión maior".
(Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa –Hernaniko Mandatuen Liburua, 1726-1849.)

Oso litekeena da erabaki horren atzean diru-kontuak egotea; izan ere, igandeko meza entzutera ermitara joaten zirenek hantxe uzten zituzten beren diru-ekarpenak, eta horrek mesederik ez zien egitenparrokiako mezaren eta herriko eliza nagusiaren finantzei.

Laburbilduz, esan dezakegu 1771ra arte behintzat izaten zirela mezak Elizatxon.

Urtxuli Olaizolari egindako elkarrizketari esker, jakin dugu 1944 inguruan berriz hasi zirela mezak ematen. Carmelo Labacak goizeko meza urtean bitan emateko ohitura berreskuratu zuen, maiatzaren 3an eta irailaren 14an, hain zuzen ere; hots, Gurutze Santuaren Aurkikundearen egunean eta Gorakundearen egunean. Dena den, 1990erako, bi egun horietako lehenengoan bakarrik esaten zuten meza.

Garai batean, ahukua Portu ingurutik San Joan parrokia-elizarantz abiatzen zenean, parrokiako serorak mahai



bat jartzen zuen otoizlekuaren aurrean, hilkutxa bertan uzteko. Ahukuarekin batera zihoan elizgizonari beste hiru apaiz batzen zitzaizkion hor, beren soingaineko beltzarekin, eta meza-mutil batzuk ere bai, eskuetan gurutzea hartuta. Hil-otoitza egin ondoren, elizara joaten ziren denak, hileta-elizkizunera. Gauza bera egiten zen Zinkoenean, beste auzoetako herritarren kasuan.

Ermitatxo honetan bada mendeak joan eta mendeak etorri bizirik iraun duen ohitura bat: gauean argitxo bat piztuta izatearena. Gerra-garaia baino lehen, oliozko argiontzi batjartzen zuten -oinezkoen eta erromesen limosnari esker ordainduta-, eta serora arduratzen zen ilunabarrean pizteaz eta goizaldean itzaltzeaz. Gaur egun, bonbilla elektriko batek betetzen du oliozko argiontzi haren lekua. Kandelak bai, lehen bezala orain ere izaten dira ermitan.

Maiatzaren 3an, Gurutze Santuaren Aurkikundearen egunean, zaindariaren jaiak izaten dira auzoan. Ospakizun horiek fama handia daukate inguruan, eta jendetza bertaratu ohi da. Halako egunetan, meza esaten da ermitan; normalean, asteburuan, ahalik eta jende gehienak izan dezan bertaratzeko aukera.

Oraindik ere debozio handia pizten du ermitak: fededunek aitagurea egiten dute aurretik igarotzean, otoitz egiten dute, eta diru pixka bat ere uzten dute.

Santa Kutzekootoizlekuari buruzko azterlan interesgarri batean Jesús Azkue Sarasuak jasotakoaren arabera, Hernaniko garai bateko haurrak «txakur handiak» nork harrapatuko aritzen zirenhan jolasean: makila bat hartu, muturrean buztin bigunezko ore bat jarri, eta ermitako burdin hesien tartetik sartzen zuten, lurrean zeuden txanponak buztinari itsatsita eskuratu nahian. Ezustekoren batek haien asmoa pikutara bidaltzen ez bazuen behintzat, gozokiak erosten zituzten sariarekin, «zerutik erori izan balira bezala» -ezin egokiagoa esapidea-. Manuel Gorostegi San Sebastiánek esandakoaren arabera, hori bera simaurrarekin egiten zuten haiek. Beste modu bat ere bazutenhaurrek txanponak lortzeko: serorakermitatik kanpora botatako hondakinak ondo arakatzea; izan ere, inoiz edo behin, txakur txikiren bat izaten zen hondakin haien artean, eta, zoria alde izanez gero, txakur handiren bat ere bai.

HISTORIA

JATORRIA

Salustiano Gastaminza historialariaren arabera, 1570ean eraiki zuten ermitatxo hau. Dena den, ez zuen zehaztu zertan oinarritu zen horibaieztatzeko.
(GASTAMINZA, Salustiano. HERNANI. Establecimiento Tipográfico de Raimundo Altuna. Donostia - 1913)

Santa Kutzekootoizlekuaren ermita Sebastián de Yarça batxilerraren kontura eraiki zuten. Batxilerra ez ezik, Hernaniko San Joan parrokia-elizako bikarioa ere bazen gizona. Gainera, 1579ko abuztuaren 9an egin zuen testamentuan, 100 dukat utzizituen ermitarako dohaintzan, eta Donostian zeukan Buñoa oinetxeko oinordeei agindu zien haien urteko errentaren 7 dukatekin beti ondo zainduta eduki zezatela ermita.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.2. Fol. 15.)

Bitxikeria gisa, jakin ezazue 1782ko irailaren 23an, gotzainaren ordezkariak ikustaldia egin ondoren, ermita eraisteko agindua eman zela, eta bertakoondasun eta jabetzak parrokiaren eskuetara igarotzekoa. Zorionez, sekula ez zuten agindu hura bete.
(Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa –Hernaniko Mandatuen Liburua, 1726-1849)



PATROIAK

Sebastián de Yarça ongilearen nahia betez, Udala eta parrokia ziren ermita honen patroiak, erdi bana. Patroien Batzarra alkateak eta bi erregidorek (bi zinegotzik) osatzen zuten udalaren izenean, eta bikarioak eta bi benefiziaduk parrokiaren izenean. Gainerako kasuetan bezala, obrak eginaraztea, administrazio-lanak egitea, kontu-hartzailea eta serora izendatzea, eta abar zeuden haien esku; elizatxoarenkudeaketarekin lotutako kontu guztiak, alegia.

KONTU-HARTZAILEAK

Kontu-hartzaile edo maiordomoak sekularrak izaten ziren gehienetan. Ermiten eta ospitaleen ondasunen inguruko erabakiak hartzen zituzten. Agiriek ezer gutxi esaten digute kontu-hartzaileek egindako lanari buruz, baina bai jasotzen dituztela kontuak ondo eramaten ez zituztenekoak edo anomalia ekonomikoak gertatzen zirenekoak. Kontu-hartzaileek Patroien Batzarrari aurkeztu behar izaten zioten ermitaren kontuen urteko balantzea, eta, balantze horretan desorekaren bat hautemanez gero, kontu-hartzaileak bere poltsikotik ordaindu behar izaten zuen aldea.

Ermita batzuetan, liskarrak izaten ziren patroien eta kontu-hartzaileen artean. Kasuren batean, patroien eta kontu-hartzaile baten alargunaren artean sortu zen haserrea, senarrak hildakoan zorretan utzitako zenbatekoa ordaintzera behartu zutenean emakumea.

Kontu-hartzailea sine die edo urtebeterako aukeratzen zuten. Bigarren kasu horretan, berriro izenda zitekeen ordura arte lanpostua betetzen aritutakoa.

Hona hemen, adibide gisa, Hernaniko Santa Kutzeko otoizlekuak izandako kontu-hartzaileetako bi:

FERNANDO DE HEGURROLA BATXILERRA: 1586ko agiri batek jasotzen duenaren arabera, sei urtez izan zen kontu-hartzaile.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Gabriel de Izaguirre. Leg. 928, fol. 1)

LUIS PEREZ DE GALARRETA: 1592 eta 1594 bitartean izan zen kontu-hartzaile.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Nicolás de Ayerdi. Leg. 975, fol. 160; eta leg. 993, fol. 14.)

SERORAK ETA ERMITAUAK

Liburu eta paper sortak aztertu ostean, ermita honetako serora edo diakonisa gutxi batzuei buruzko datuak besterik ez ditugu bildu, baina askoz gehiago izango zituen, noski, bere historia luzean zehar.

CATALINA DE ÇUAÇO edo ZUAZO: Oiartzuarra zen jaiotzez eta 1602ko apirilaren 11n egin zuen testamentua.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Martín Pérez de Ayerdi. Leg. 1001, fol. 99.)

MARIA MIGUEL DE HONDARZA: 1650ean eta 1657an serora aritu zela diote agiriek.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Juan López de Araeta. Leg. 1089, fol. 338 v.; eta Eskrb. Aparicio de Yerobi. Leg. 1177, fol. 43)

MAGDALENA DE ZABALETA: 1661ean hartu zuen kargua, María Miguel de Hondarza hiltzean.
(Iruñeko Gotzaindegiaren Artxiboa. Leg. 838/14).



ANA DE MINER: Hernaniar dontzeila hau 1683ko abuztuaren 9an izendatu zuten ermitako serora, Magdalena de Zabaleta hildakoan. Ohiturari jarraituz, patroiek oniritzia eskatu zioten gotzainari.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Esrb. Francisco de Aguirre. Leg. 1226, fol. 311)

JOSEPHA DE SASOETA: 40 urte baino gehiago zituen dontzeila honekserora bihurtu zenean, 1688ko irailaren 28an, Ana de Miner hiltzean.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Miguel de Ipinza. Leg. 1256, fol. 97.)

BERNARDA DE BERECOECHEA: Josepha 1711ko urtarrilaren 19an hil ondoren, otsailaren 7anpatroiek Bernarda de Berecoechea hernaniarra izendatu zuten serora. Hori baino lehen, 150 erreal eskaini behar izan zituen emakumeak, bai eta aldarerako aurrealde bat ere, lanpostua eman ziezaioten. Alabaina, Bernardari sei edo zazpi urte inguru falta zitzaizkionez lanpostu hori bete ahal izateko gutxieneko adina izateko -lehentxeago esan bezala, 40 urte izatea eskatzen zuten-, patroiek, Bernardaren gizatasuna goraipatuz eta bere dotea kontuan izanik -ermitan konponketa-lanak egiteko hain beharrezkoa-, baimen berezia eskatu zioten probintziako gobernadoreari, emakumea serora-lanetan has zedin.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.9. Fol. 68 v)

MANUELA DE GASTELUMENDI: Bernarda de Berecoechea hildakoan, Manuela de Gastelumendidontzeila hernaniarra izendatu zuten serora, 1748ko otsailaren 13an.
(Hernaniko Udal-Artxiboa. A.1.9. Fol. 68 v.)

ROSARIO OLAIZOLA: XX. mendean sartuta, Rosario Olaizola trukean ezer kobratu gabe aritu zen ermita zaintzen. 1963an zendu zen, ia 80 urte zituela.

URTXULI OLAIZOLA ARTOLA: Aurrekoaren iloba. Debozioak bultzatuta jarraitu zuen ermita zaintzen. Donostian jaio zen, 1917an, baina lau urte zituenetik Hernanin bizi da. Gurekin elkarrizketatu baino pixka bat lehenago -1990eko abenduaren 27an egin genuen elkarrizketa-, eskumutur bat apurtu zuen, eta, ezintasun fisikoagatik, utzi egin behar izan zion ermita zaintzeari. Orain, Juani Miner ari da lan horretan.

JUANI MINER: Hernaniko Ereñotzu auzoan jaioa.

Benetan goresgarria da emakume hauen pairakortasuna; nola aritu diren eta aritzen diren emita garbi eta txukun izaten, trukean inolako onura materialik jaso gabe.

Atal honi amaiera emateko, Antonio Aranaren kasua aipatu nahi nuke. Otoizlekutik edo Elizatxotik gertu bizi zen gizon hau. 1847ko azaroaren 20an, diakonorik ez zegoela eta, inork ez zuenez limosna biltzen -gauero jaso behar izaten baitzen, argia piztuta izatearen kostua ordaintzeko-, herrian kalez kale ibiltzeko baimena eskatu zion Udalari. Udalak, baina, ezezkoa eman zion.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Miguel Antonio de Ugalde. Leg. 1357, fol. 41)

KONPONKETA-LANAK

Santa Kutzeko otoizlekuaren ermita edo Elizatxoa bi aldiz aldatu zuten lekuz. Lehendabizi, 1706an. Konponketa batzuk behar zituela eta, auzotar batzuek eskatu zuten bide batez eraman zedila ermita leku egokiago batera, eta bere lehengo lekuan plazatxo bat egin zedila. Urte hartako urriaren 10ean, Udalbatzak baiezkoa eman zion



proiektuari. Udalak 10 dukat eman zituen obrarako, eta bi egur-beso, baina baldintza bat jarri zuen: ermita lekualdatu nahi zuten auzotarrek ordain zezatela egurra mozteko eta eramateko lana, baita gainerako gastuak ere -pentsatzekoa da txikiak behintzat ez zirela izango halako gastuak-.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.8. Fol. 193 v.)

Handik bi hilabetera, 1706ko abenduaren 5ean, ermita zaharreko kareletako burdinak udaletxera eramatea erabaki zuen Udalak, eta aurrerago ermita berrian halakoen beharrik izanez gero, seroraren doteko diruarekin ordainduko zituela Udalak ermita berrian jarritakoak.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.8. Fol. 200.)

Bigarren lekualdatzeari buruzko testu baten arabera, aurreneko aldi hartan udaletxearen atzealdera eraman zuten ermita, Urnietaranzko irteera aldera.

Mende erdi geroago, 1758ko apirilaren 16an, Santa Kutzekootoizlekuaren ermita zaharberritzeko baldintzak zehaztu zituzten:

"Que dicha obra se ha de hacer dejando en los parages donde al presentte esttán el alttar de dicho humilladero y la cocina de la havittación de la serora.

Que el remattantte deverá levanttar los tejados nuevamentte como demuesttra el diseño que para el effectto se a echo y es estte que se alla de manifiestto, con su sala enttera de arriva, executtando diez esttados de pared manposttería sobre las paredes anttiguas y en el costtado del enrrejado de fierro que tiene como en la enttrada de la puertta nueva y gradas de escalera para la havittaciónde dicha serora.

Que haia de rancar desmoronar y mudar nuevamentte veintte varas de piedra labrada usada de arenisca al fronttis de dicho humilladero y a la esquina del pilar y poner con su aguabendittera, teniendo a su cargo el arranque y devolución de los fierros.

Que hai de poner quarentta y cinco varas de piedra labrada en las esquinas de dicha pared anttigua y en cinco gradas y sus esquinas o lados.

Que ha de componer dicho pilar añadiendo un pedazo de piedra arenisca y asegurar y clavar con una cavilla de fierro y plomo.

Que en el superior de la sala hastta dar con los tejados y enserramienttos de la puertta ynterior de la hermitta con sus luciduras ha de executtar diez esttados de media astta de ladrillo y en la chimenea su campana y alcova de arriva seis esttados de tavique de yeso.

Que en el intterior de la dicha casa ha de lucir y blanquear en quince esttados y deverá mudar y asenttar quince codos de losas usadas que se allan en la hermita, a su cocina.

Que todo el matterial que necesittare de maderamen se le franqueara por la villa en el montte y su condución y execución hasta poner en devida forma en la obea será de cuentta y costte del remattantte y toda ella en todo género llevará ochocienttos codos de maderamen, dándole los principales robles como se le darán en el concegil llamado Presazarra o en el superior suio.



Que deverá poner en los tejados ochocienttas tejas nuevas además de las usadas que existten y son dos mill con las que deverá rettejar.

Que ha de poner cientto settentta cosos de tablas seca en la sala enttera de arriva, en el quartto de la cocina y en las escaleras y ducienttos y settenta y dos codos de ripia junttada con garlopa, deverá asenttar y clavar sobre los cabrios y ottros treintta y ocho codos de tablas lisas machinbradas en seis venttanas y dos puerttas.

Que dichas puerttas y venttanas han de llevar ocho pares de brazuelas, poniendo además dos cerrojas y dos llaves.

Que por la composición del enrrejado de fierro de la fachada que se deverá añadir toda con los que existten y salieren del ottro costado del lado de la casa de don Juan Bautista de Aierdi, el remattantte tendrá para si y a su favor los fierros que en ello se sobraren, como también se podrá valer dicho remattantte, sin prettención que le haga la villa de los matteriales que se hallan denttro y fuera de dicha hermitta.

Que toda la dicha obra habra de hacer y concluir para el día del apostol San Tiago, veintte y cinco de julio de estte dicho año y el pagamentto del ymportte según estte remate sattisfará la villa a saver la mittad al tiempo de la escritura que deverá ottorgar y la ottra mittad al tiempo que concluiendo enttregare dicha sattisfacción de la persona que nombrare estta dicha villa y para la seguridad y cumplimientto denttro de tercero día haia de dar fianzas de conttentto y sattisfación de dichos señores del Regimiento."
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Miguel Antonio de Ugalde. Leg. 1363, fol. 145.)

Apirilaren 20an, Juan Bautista Aristizabal izendatu zuten zurgintza- eta hargintza-lanen arduradun, 119 ezkuturen eta 2,5 errealen truke, Udalak mendian jarritako egurrarekin.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Miguel Antonio de Ugalde. Leg. 1363, fol. 1439)

Azken orduan beste berrikuntza batzuk egin zituztenez ermitan eta serora-etxean, berriro baloratu behar izan zituzten lanak. Bigarren balorazio hori egitean, ondorioztatu zuten hasiera batean aurreikusitako 1.774,5 errealez gain, beste 2.453,5 erreal gastatu zituztela konponketak egitean; guztira, beraz, kobrezko 4.228 erreal. Urriaren 7an egin zitzaion ordainketa eraikitzaileari.
(Eskrb. Miguel Antonio de Ugalde. Leg. 1363, fol. 284).

Eta hona hemen ermitaren bigarren eta oraingoz azken lekualdaketa.
1768ko maiatzaren 16ko agiri baten bidez, eginkizun hauetarako baimena eman zen: *"demoler la hermita de la Sta. Cruz del Humilladero, situado a la parte de la espalda de la Casa Concejil y para q. se traslade a otro parage donde no impida a la rectitud del camino".*

Hona azalpena: udaletxetik Urnieta aldera lerro zuzenean joango zen errege-bide bat egiteko premia zegoenez, lekuz aldatu behar ermita, bide erdi-erdian zegoen eta. Hasieran, auzotar asko otoizlekua lekualdatzearen aurka jarri ziren; auzotar guztiak, hobeto esanda. Alabaina, aldaketa horrek ekarriko lituzkeen onurak ikusita, eta baldintzak aurrez zehatz-mehatz ipinita, lekuz aldatzea erabaki zuen azkenean Udalak.

Urte hartako ekainaren 5ean atera zituzten obrak enkantera. Hona esleipendunek bete beharko zituzten baldintzak:



"Que la referida Hermita se deve trasladar y redificar en el sobre dicho sitio (el paraje de Leocaburu) a donde la demarcación de estacas, en las mismas medidas que actualmente las tiene, con obras de igual o maior perfeción y subsistencia que al presente tiene con la bariedad o diferencia, es a saber: lo primero de la escalera de piedra de la parte esterior que no se deberá redificar por no ser necesaria; lo segundo de que no deberá llebar la abitación que actualmente tiene sobre el cielo y suelo, ni su elabación, si no que atajando el fondo de la hermita con una división de mediosta o quatro codos desde la pared de la espalda, se deberá hazer la habitación para la serora, con una puerta en la pared maestra por la parte del oriente para la entrada de dicha habitación, con las gradas necesarias de piedra arenisca, por la parte esterior y con una o dos ventanas pequeñas en dicha pared maestra de la espalda en alturas proporcionadas la una para el primer piso y la otra para un entre suelo de solibas y las que se debe también hazer en altura proporcionada con una escalera suelta estrecha, de codo y quarto de ancho para subir y bajar.

Que la entrada de dicha hermita se ha de poner en la igualdad posible con la mayor elebación del camino de nueba calzada en toda la estensión de ella y en la puerta de su entrada se deberá poner una grada de medio pie de altura para que no se introduzcan al interior de la hermita las agoas llovedizas.

Que en el frontis de dicha hermita se deberán poner la coluna de piedra, rejas de fierro y zelosías con la cornixa de madera en el remate de la misma suerte que al presente se allan en la que se debe demoler.

Que el interior de dicha hermita se deberá jarrear, lucir y executar el suelo de enlosado y el techo de cielo raso como al presente se allan y echo esto, se deberá trasplantar dicho altar y retablo, arrimada a dicha división de mediasta, siendo el altar de media bara de menor salida.

Que dicho cielo raso se deberá hazer media bara más vajo de lo que al presente se alla y echando las zapatas sobre la solibadura de este cielo se podrá cubrir de tejado la hermita sin mas elebación o altura.

Que también ha de hazer el rematante la vodeguite de la misma forma que solía haver debajo de la habitación de la serora en la hermita anterior a la de aora, con su escalerita firme para subir y vajar a la mesma bodega desde la habitación de la serora, con su puerta para fuera, haciendo también su cocineta, con su chimenea y campana, enlosando de ladrillado y algunoas losas y dejando revocadas las paredes interiores de la havitación de dicha serora y planeadas a lo último, y que en dicha vodeguilla haia de hacer el rematante entre la hermita y vodega para su dibisión una pared de maspostería en todo lo largo de la vodega, con su cimiento de un pie y grueso de uno y medio y de alto asta dar con dicha havitación.

Que para que dicho desban de la havitación de la serora sea mas ancha y larga hara en lugar de la pared maestra que devía llebar de media asta de la que ay aora en la pared de dicha hermita, poniendo el maderamen respectibo que lleba la referida media asta que ha de demoler.

Que el sobrante de la piedra así labrada como manpostería y las rejas de fierro de la escalera esterior de dicha hermita y el material sobrante de maderamen de las dibisiones y tabla del suelo de la havitación actual de la Hermita cumplidas las dichas puertas, bentanas en el tresuelo y escalera que se deven executar en la nueba hermita, serán y quedarán para esta dicha villa y si acaso faltare le dará la villa al rematante el material de maderamen en el monte, pero la piedra que faltare abrá de ser su arranque en la cantera y condución a la obra a costa del rematante.



Que el desmonte de dicha hermita ha de ser de quenta del rematante y devera hazer dentro de quince días desde el día de la escritura de obligación que otorgare con la villa para la redificación de dicha hermita, al tercero día con fiadores de contesto y satisfacción de la villa, pena de apremio daños y perjuicios.

Que el rematante ha de acabar y concluir dicha nueba hermita para fines del mes de agosto de este presente año.

Que a quenta se le pagará al rematante un tercio, según esta almoneda al tiempo de comenzar a desmoronar, otro a medio hazer y el otro a su conclusión y entrega... "
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Miguel Antonio de Ugalde. Leg. 1372, fol. 187)

Abuztua amaitzerako, eta 118,5 ezkuturen truke, obra guztia bukatuta izateko ardura hartu zuen bere gain Fermín de Aristizabalek. 1768ko ekainaren 13an izenpetu zuten kontratua.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Miguel Antonio de Ugalde. Leg. 1372, fol. 185).

Lekualdatze hartan, ermita zaharreko material baliagarri guztiak aprobetxatu zituzten. Lanak bukatutakoan, Iruñeko katedraleko hornitzaile eta bikario nagusi Fermín de Lubiáni baimena eskatu zioten, ermita berrian ospatu ahal izateko *"el Santo sacrificio de la misa y demás funciones que hacían de procesiones en la demolida"*.

Guztizko lidikazioa aurkeztean, 1768ko azaroaren 15ean, kobrezko 249 erreal ordaindu zituzten, hasiera batean aurreikusi gabeko hobekuntzek ekarritako igoera barne.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Miguel Antonio de Ugalde. Leg. 1372, fol. 392)

Udalbatzak hogei urte geroago (1788ko apirilaren 6an) egindako bilkura baten aktan, honako hau irakur dezakegu:

"El Sr. Alcalde dijo de que la Ermita que se halla profanada por mandato del Sr. Obispo consiguiente a la Real Zedula de Su Magestad respecto de haver fallecido ahora pocos días la serora que cuidaba, es su voto que lo que ocupa dicha hermita, se haga havitación respecto de ser estrecha la que tiene atrás; y que en el zaguán se coloque la imagen de Christo que existe en el altar, para que sirba de señal a los cadáberes que desde la Hurumea se conducen a esta casa antes de transportarse por el cavildo a la sepultura de haver muerto en la comunión de los fieles y que el frontal, manteles y demás que haia del servicio del altar se entreguen al thesorero de la villa en calidad de mayordomo de la cofradía de ánimas, para que sirban al altar de dicha cofradía en la parroquia que es de Stro. Christo, y que esta casa así compuesta se arrendamiento se saque a almoneda, entrando la renta que cada año diere en los propios de la villa.

El Sr. Regidor Gaztelumendi, votó que la hermita del Umilladero exista conforme está, hasta que la villa tenga otros arbitrios y que su havitación se saque a almoneda.

El segundo regidor Aguirre, votó lo mismo que su compañero Regidor Gaztelumendi.
El Sr. Diputado voto lo mismo.
El Sr. Manuel de Ollo, lo mismo.
El Sr. Pedro de Ollo, lo mismo.
El Sr. de Ollo, lo mismo.
El Sr. Miguel Ygnacio de Berecoechea se adhirió al voto de los regidores lo mismo que otros.
El Sr. Justo Pastor de Ansorena, lo mismo.
El Sr. Nicolás de Ansorena, lo mismo.



El Sr. Pedro José de Aristizabal, lo mismo.
El Sr. Manuel de Egaña, lo mismo.
El Sr. Antonio de Olloquiegui, lo mismo.
El Sr. Pedro de Arrieta, lo mismo.
El Sr. Patricio de Arbiza, lo mismo.
El Sr. Agustín de Belderrain, lo mismo.
El Sr. Pedro de Abalabide, lo mismo.
El Sr. Jose Ygnacio de Miranda, lo mismo.
El Sr. Fermín de Aristizabal, lo mismo.
El Sr. Jose Justo de Aiarragaria, lo mismo.
El Sr. Miguel Antonio de Arrieta, lo mismo.
El Sr. Francisco Ygnacio de Rezabal, lo mismo.
El Sr. José Agustín de Galardi, lo mismo que el Sr. Alcalde".
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.11. Fol. 45 v)

Ikus dezakezuen bezala, baliabiderik ez zegoenez, eta serorarik ere ez, galzorian egon zen ermita. Nolanahi ere, alkateak aurkeztutako proposamen horri ezezko biribila eman zioten gainerako erregidoreek, batek izan ezik.

Gudaroste konbentzional frantsesak herriko iturgin Idelfonso de Aguirrezabalen etxea hondatu zuenean -Leokako iturriko etxea, alegia-, serora-etxe zaharrera joan behar izan zuen iturginak bizitzera. Urtean 8 dukateko errenta ordaintzen zuen han bizitzearen truke. 1796ko abenduaren 26an, iturriaren etxea berreraikitzeko eskatu zion Udalari, edo, bestela, otoizlekuko errenta ordaintzeko betebeharra kentzeko. Aukeretan bigarrena hartu zuen Udalak, eta etxea berreraikitzeko kostua aztertuko zuela ere esan zion.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.11. Fol. 157.)

JABETZAK

Hernaniar askok herriko ermiten aldeko dohaintzak egiten zituzten heriotzaren orduan. Santa Kutzeko otoizlekuari ia testamentu guztietan uzten zioten zerbait -gogoratu, gainera, otoizlekua bera dohaintza bati esker egina dela-. Hala, esaterako, 1594an, Domingo de Achaga eta María de Aguirre senar-emazte hernaniarrek Etxangoena etxearen eta baratzearen errentaren bi urteko etekinak (urtean 5 dukat) dohaintzan eman zizkioten ermitari.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Martín Pérez de Ayerdi. Leg. 993, fol. 14.)

María de Arazubia alargunak kapilautza bat ezarri zuen ermitan 1637an, 5 dukaten urteko interesen kontura ermitan mezak emateko.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Sebastián de Sasoeta. Leg. 1143, fol. 103)

Luis de Yrigoyenbenefiziaduak zortzi errealeko zilarrezko 10 erreal utzi zizkion elizari dohaintzan.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Juan López de Araeta. Leg. 1089, fol. 338 v)

Bestalde, Adrián de Ernani hernaniarrak 14 dukatek eta 8 errealek urtero sortutako etekin guztiak ermitarako utzi zituen bere testamentuan.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Juan López de Araeta. Leg. 1089, fol. 338 v.)

Ermitaren lursailei buruzko berririk ez dugu aurkitu.



4 SANTA BARBARAKO ERMITA

SAN JOAN KONPARTSAREN OHARRA:
San Joan Konpartsak, 1995eko sanjoanetan, Antxon Aguirre Sorondok berak ermita honi buruz idatzitako liburuxka banatu zuen. Hori dela eta, Antxonek bere garaian egindako lana nolabait osatuko luketen datuak baino ez ditugu emango.

IZENA
Santa Barbara.

PARROKIA
Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokia-eliza.

KOKAPENA
Santa Barbara baserriaren ukuilua zegoen lekua hartzen zuen garai batean, gaur egun jatetxeko jantokia dagoen lekua. Sakristia zegoen lekuan taberna dago orain. Gaur egungo ermita goraxeago dago, aurrekoa zegoen lekutik ehun bat metrora.

Altitudea: 240 metro, itsasoaren mailatik gora.
Koordenatuak: x = 1º 41' 46" / y = 43º 15' 45"

JATORRIA
Ermita honi buruz daukagun lehen berria 1526ko urtarrilaren 25ekoa da. Egun hartan, Hernaniko Udalbatzak serora edo ermitau bat izendatzea erabaki zuen, aurreko diakonisak -Elizaren zerbitzura zegoen emakumeak-, hildakoan, hutsik utzitako lanpostua betetzeko.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.5. Fol. 62 v.)

DESKRIBAPENA
Bisiten koadernoan, 1745. urteari dagozkion orrietan, Santa Barbarako ermitaren deskribapen zehatz-mehatza dago jasota. Hemen duzue testua:

"En esta hermita hai tres alttares: el principal es de Sta. Bárbara, el de la parte del evangelio está dedicado a San Lorenzo martyr, cuia efigie es de escultura antigua y se alla deslucida; uno y otro tienen aras enteras aforradas de lienzo y sus dos manteles; en el la parte de la epístola no se dice missa. Hai una alba y sus corporales buenos, una casulla de tela pintada que sirve para blanco y rojo; tiene también missal mui bueno y el cáliz se lleba de la parroquia. No hai sacras, ni tablilla del lavabo y último evangelio; pero un juego de ellas bastará, por que no se dizen dos missas a un tiempo; necesita de lucidura blanca la yglesia, especialmente la pared que mira a la parte septentrional. La villa es patrona de esta hermita y esta servida de un hermitaño que vive solo".
(Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa –Hernaniko Mandatuen Liburua, 1726-1849.)



EGOERA

Garai bateko ermitaren lekuan, baserri-taberna bat dago orain. Ermita berriazementuzkoa da, eta biribila; diametroan 6,50 metro inguru ditu. Oso egoera onean dago. Gailurrean dago, hesi batez inguratuta.

IKONOGRAFIA

Garai batean, bi irudi izan zituen barrualdean: Santa Barbararena bat eta San Lorentzorena bestea. Eta, hasiera batean, hiru aldare izan zituen ermitak; beraz, pentsatzekoa da irudiak ere hiru izango zituela. Ez dakigu, ordea, hirugarren hori zein santuri eskainia zegoen. Gotzainaren ordezkariak 1832an ikustaldia egin ondoren, irudi haiek txukuntzeko edo atontzeko agindua jaso zuten, egoera tamalgarrian zeudelako; erre egin beharko zirela, bestela. Eliza zaharra utzitakoan eta mendian goraxeago berria eraikitakoan, Santa Barbararen irudi moderno bat jarri zuten bertan, pastaz egina, harrizko zutabe baten gainean. Ondoan, apaltxo baten gainean, Loiolako San Ignazioren irudi bat jarri zuten.

ELIZKIZUN, ERRITU ETA OSPAKIZUNAK

Aztertu ditugun agirietan jasotakoaren arabera, eta gure berri-emaileek oraindik ere gogoan duten bezala, ermita honek hodeiak konjuratzeko ahalmena omen zeukan. Bertako talaia paregabetik ekaitza iragartzen zuten hodei beltzak ikusi orduko, gogotik hasten zen serora edo ermitaua kanpaia jotzen.

Helburuak bi ziren: alde batetik, kanpai-hotsen bidez ekaitza uxatzea -kontuan izan Erdi Aroaz geroztik uste zutela kanpaien hotsak desagerrarazi egiten zuela ekaitzek kaltea sortzeko ahalmena-, eta, bestetik, parrokiari ohartaraztea, han ere kanpaiak helburu berarekin jotzen hasteko -sinetsita baitzeuden zenbat eta kanpai gehiago jo, eta kanpai-hotsa zenbat eta ozenagoa izan, orduan eta handiagoa izango zela haien konjuru-ahalmena-. Kontu hauek eta beste batzuk 1725eko agiri batean daude azalduta:

"...A causa de haverse rompido su campana se arrancó para su fundición ahora tiempo de dos años que apoca diferencia haver puede y por quanto abibas dilijencias se a conseguido la fábrica de la nueva que retardó Sevastián de Quintana a quien para el efecto se entregó la así quebrada que antes havía y esto a sido causa de que aia entibiado la devoción que a aquella ymagen se a tenido siempre de inmemorial tiempo a esta parte no solamente por el pueblo de esta villa sino también por los havitadores en el partido de Artiga y Lasarte, jurisdicción de esta villa, comunidad de Zubieta, que se compone de jurisdicción de la ciudad de San Sebastián y en parte de la villa de Usúrbil manifestando la sobre dicha devoción tan radicada por limosnas frequentes que hiban aciendo en tiempo añal de agosto de los frutos que recojían a fin de que el hermitaño se mantubiere en dicha hermita abista de que no solamente diariamente por alibio común de los travajadores y enfermos de los sobre dichos parajes en que no ai relox público celava el hermitaño quando dava el público de esta dicha villa de imbierno y verano las doce de medio día y llamava a fin de avisar a todos ser ia la referida ora con dicha campana de Santa Bárbara y demás de ello cumplir y haver cumplido dicho hermitaño según la costumbre inconcusa con el repique de dicha campana y a la alva desde Santa Cruz tres de maio asta catorce de septiembre analmente y así bien en aquel intermedio siempre a semblante de tenpestad de truenos y relámpagos por preservar por este medio de su amenaza la cosecha común del campo...".
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Escrib°. Antonio de Ayerdi. Leg. 1299, fol. 279.)

Orain, meza hastera doala iragartzeko bakarrik jotzen dute kanpaia.



1726an, agindu hauxe eman zuen gotzainak, bere ordezkariak bisita egin ostean:

"Cuidar del adorno de los altares y cosas de su cargo (del ermitaño) teniéndolas a buena custodia y avisando de cualquier falta al patrono o a nos si no se socorriere y así mismo mandamos no permita que ningún sacerdote secular o regular forastero celebre misa ni le suministre recado alguno que no sea exiviendo primero sus licencias de nuestro obispado pena de excomunión y diez ducadosde multa".
(Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa –Hernaniko Mandatuen Liburua, 1726-1849.)

Jende asko hurbiltzen zen ekaitzak eta tximistak uxatzeko esaten zen mezara. Lázaro Izaguirrek, 1931n Santa Barbara auzoko Marraka baserrian jaioak, esan zigun zerua haserre-itxura hartzen hasten zenean, lapiko bat ateratzen zutela baserritarrek kanpora. Barruan baratxuri-hostoaren apurrak, Erramu Igandean bedeinkatutako erramu zati bat eta intsusa-hosto batzuk sartu, eta sutan jartzen zuten. Horrek sortutako ke-lainoak aienatu egiten omen zuen tximista. Hala egiten zuten, behintzat, bai bere amak, bai ama baino lehen bere amonak ere.

Santa Barbara egunean, herritik oinez abiatzen zen eta abiatzen da jendea, ermitan meza entzutera. Ostiral Santuan penitentzian ere bai, gurutze-bidean otoitz eginez.

Uztailaren 31n, San Ignazio egunean, erromeria izaten da, Mendi Gain elkarteak antolatuta. Herri-kirolak, bertso-saioak, meza eta dantzak izaten dira bertan, eta inguruko zelaietan bazkaltzen geratzen da jendea.

OHARRA:
1996az geroztik, Morkaiko Kultur Elkartea arduratzen da jai hori antolatzeaz. Mendi Gain Elkarteko kideak dira bertakoak. Mendi Gain izenarekin jarraitzea zen asmoa, baina Autonomia-Erkidegoko Elkarte Kulturalen erregistroan legeztatzeko arazoak zeudela eta, ez zen posible izan. Hortaz, elkarte kultural berriari Morkaiko Kultur Elkartea lege-izena jartzea erabaki zuten.

Eskualde osoan dago ermitatxo honekiko debozioa; Hernanin, Urnietan, Lasarten, baita Andoainen ere.

PATROIAK

1526ko lehenengo agiriaren eta hortik aurrerako guztien arabera, Hernaniko Udala izan da beti ermitaren patroi. Bertako zinegotzi edo erregidoreek hartzen zituzten elizatxoari buruzko erabakiak.

KONTU-HARTZAILEAK

Bitxikeria soila besterik ez bada ere, seroren eta ermitauen atalean sartu baino lehen, hona hemen guk dakigula Santa Barbarako ermitan aritu ziren hiru kontu-hartzaileen izenak:

SEBASTIAN DE AMASORRAYN: 1609an izan zen kontu-hartzaile.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.4. Fol. 3)

ANDRES DE ZUAZNABAR: 1687an hartu zuen postua.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Juan de Zabala. Leg. 1203, fol. 93)



FRANCISCO ANTONIO DE ZAVALA: Herriko alkatea. 1725ean izendatu zuten kontu-hartzaile.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.9. Fol. 304)

SERORAK ETA ERMITAUAK

GRACIA DE SAROBE: 1526an hil zela dakigu.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.5. Fol. 63 v.)

GRACIA DE AUÇABERRIA: Antón de Auçaberriaren eta Juana de Yrigoyenen alaba. 1526ko otsailaren 10ean izendatu zuten serora.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.5. Fol. 63 v.)

MARIA ANTON DE YARÇA: 1589ko irailaren 28an, serora-postua eskatu zuen, eta erregidoreek baiezkoa eman zioten.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.2. Fol. 152 v)

1604ko urriaren 14an, oso gaixorik zegoela, azken borondateak egin zituen, eta hauxe adierazi zuen:

"Yten mando a la hermita de Santa Bárbara donde soy tal serora cinco escudos para que con ellos se aga un pendón o cubierta de tabla de pino sobre el altar de la bienabenturada señora Santa Bárbara encima del dicho altar para su limpieza y hornato y que ni se puedan gastar ni se gasten los cinco ducados tan solamente en el azer de la dicha cubierta...".
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Miguel de Arbiza. Leg. 1017, fol. 365)

CRUCIANA DE AUZABERRIA edo AUSABERRIA -dokumentu berean bi moduetara baitago idatzita-: Azken hatsa eman baino lehentxeago egindako testamentuaren bidez, 1671ko maiatzaren 11n, limosnak eman zizkien ermitei, parrokia-elizari, komentuari eta ospitaleari.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Blas de Alcega. Leg. 1232, fol. 50.)

FRANCISCA DE AUZABERRIA: Aurrekoaren ahizpa. 1671ko ekainaren 28an hartu zuen haren lekua, 40 urterekin. Agiriaren arabera, Antón de Auçaberria eta Joana de Yrigoien hernaniarrak zituen guraso. (Ohartxo bat egin nahi nizuke hemen, irakurle. Izan ere, senar-emazte horiek berak agertzen dira Gracia de Ançaberria seroraren guraso gisa. 1526an izendatu zuten serora bigarren emakume hori; hau da, 145 urte lehenago. Beraz, edo kasualitatea da, edo eskribauaren akatsa. Bigarren hori izango da, ziurrenik).

JOSEPH ANTONIO DE SASOETA: Joseph Antonio de Sasoeta apaizak, San Joaneko parrokia-elizako presbiteroa zenak, Santa Barbarako ermitak hainbat urte diakonisarik gabe zeramatzala ikusita, hauxe proposatu zien patroiei: berak ordainduko zituela egin beharreko obrak eta konponketak (hargintza, zurgintza eta igeltserotza), 150 erreal emanez, trukean bera izendatzen bazuten ermitau, eta kanpoan egoten zenerako ermita zaintzeko ordezkoa izendatzeko aukera ere ematen bazioten. Proposamenari baiezkoa emanziotenetik sei hilabete ere igaro ez zirenean, esan zuen utzi egin nahi zuela kargua, eragozpenak zituela eta. Hala, 50 erreal eskaini zizkien patroiei dohaintzan, agindutako 150en ordez. Erregidoreek, 1682ko ekainaren 27ko bilkuran, ontzat eman zituzten dimisioaren baldintzak. Nolanahi ere, 1690ean, zor hura kitatzeko 20 erreal ordaindu zituen Sasoetak; horrek esan nahi du atzerapen handi samarra zeramala agindutakoa ordaintzen.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Juan de Zabala. Leg. 1200, fol. 57.)



CATALINA PEREZ DE ARVIZA: 1682ko ekainaren 27an hasi zen serora-lanetan, 43 urte zituela. Lanpostuari zegozkion eginkizunak betetzeko ardura hartu zuen bere gain, baita trumoi-hodeiak ikusi orduko ermitako kanpaia jotzekoa ere. Serora izendatu zutenean, kobrezko 100 dukat eta 100 erregu kare eman zituen, ermitan egiten ari ziren obrak ordaintzeko.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Juan de Zabala. Leg. 1200, fol. 57.)

ESTEBAN DE ECHEVERRIA: 1699aren hasieran, Catalina de Arvizaren iloba bat -emakumezkoa- hilda agertu zen ermitaren inguruetan, bortizkeria-zantzuekin -erail egin zuten, dirudienez-. Gogora dezagun ermita herritik aldenduta zegoela. Hori horrela, 1718ko azaroaren 1ean, erregidoreek erabaki zuten aurrerantzean serora beharrean ermitau bat egongo zela bertan. Hilaren 5ean, Esteban de Echeverría hernaniarra aukeratu zuen ermitau izateko, eta agintari erlijiosoei zegokion titulua eskatu zieten. Agintariek 1719ko otsailaren 4an eman zuten titulu hori.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.9. Fol. 192 v.)

Handik gutxira, Frantziako erregeordeak gerra deklaratu zion Filipe V.ari, eta haren tropek udaberrian zeharkatu zuten muga: Irun, Oiartzun... Hernanira iristean, su eman zioten ermitari. Ordurako, baina, Esteban de Echeverría ermitaua ihes egina zen, eta inbaditzaileen eskugeratu zen ermita.

SEBASTIAN DE ECHAGARAI: 1723an izendatu zuten ermitau, Esteban de Echeverríak alde egin zuenetik oso utzita baitzegoen ermita. 1725ean, gaixo egon zen aldian ermitako oihal batzuk erabili zituelaleporatu zioten -maindireak, toallak edo antzeko zapiakbaliatuko zituen, segur aski-. Salaketak ez zuen aurrera egin, baina patroiek ondasun guztiak berriro inbentariatzea erabaki zuten, eta Esteban de Echeverría berriz ere ermitau izendatzea.

ESTEBAN DE ECHEVERRIA: 1725ean itzuli zen ermitara, bere «behin-behineko ordezkoa», Sebastián de Echagarai, kargutik bota zutenean. 1747an, eskaera bat egin zion Estebanek Udalbatzari: adinean sartuta zegoenez -29 urte zeramatzan karguan, gerra-urteak kenduta-, eta maldatsua zenez Santa Barbarako ermitarako aldapa, laguntzaile bat jar zekiotela, bere eginkizunak zuzen bete ahal izateko. Erregidoreek, kasua aztertu ondoren, Martín de Toledo izendatu zioten laguntzaile. Ezkongabea zen gizona, Abaltzisketan jaioa, eta Hernanin bizi zen. Eskuzabala zen, eta kristau-ikasbidean jantzia. Esteban hildakoan, bera izendatu zuten ermitau. Horretarako ere gotzainak oniritzia eman behar izan zuen, handik denbora batera.

MARTIN DE TOLEDO: 1763rako, ermitau-lanetan ari zen, kontratu bat sinatu baitzuen Matheo de Aiestarekin, bederatzi urterako, ermitako etxea eta lurrak alokairuan emateko. Lur haien bidez, garia, artoa, babak, sagarrak eta gaztainak eskuratzen zituen. Horrez gain, Kontzejuaren jabetzako ondoko bi golde-lurrak ere lantzen zituen. Errendimendua Matheorentzat zen osotasunean, Kontzejuak lur haien gozamenagatik urtero kobratzen zizkion bi dukaten truke. Matheok, bestalde, gela bat utzi behar zion Martíni, bertan bizitzeko, arropa konpondu eta garbitu behar zion, eta haren absentzian ermita zaindu behar zuen -kanpaia jotzeaz eta gainerako eginkizunez arduratuz-. Zerbitzu horien truke, Matheok anega bat arto jasotzen zuen urtean. Alabaina, Martín de Toledok 1764an alde egin zuen ermitatik, eta ez zen gehiago itzuli. Erregidoreek, beraz, haren ordezko bat aukeratu behar izan zuten.

ESTEBAN DE ECHEVERRIA: Hasiera batean, Martín de Toledo desagertutakoan ermitan lanpostua hutsik geratu zela jakitean, Miguel de Barcaiztegui Porcheta urnietarrak 100 dukat eskaini zituen postuaren truke. Hori jakitean, Esteban de Echeverría hernaniarrak diru kopuru hori bera eskaini zuen, bere hautagaitza aurkeztearekin



batera. Bere alde esan zuen bera arotza izanik oso baliagarria izango zela ermitarako, eta hernaniar petoa zela, gainera. Barcaizteguik ezin bere alde halakorik argudiatu. Ehun dukat horiek honela ordainduko omen zituen: erdia, aldarerako arropa zuritan, eta beste erdia dirutan, lanpostua baieztatzeko eskritura egin eta bi urtera. Hitzaren berme gisa, bere jabetzako lursail batzuk hipotekatu zituen, Portu ingurukoak, Mendoza-lurrak deitzen zituenak. 1766ko uztailaren 18an, Echeverríaren memoriala Barcaizteguiri erakustea erabaki zuten udal-erregidoreek, nahi izanez gero kontraeskaintza bat aurkez zezan.

Barcaizteguik esan zuen, alde batetik, Echeverría aritua zela lehen ermitau, eta erregidoreek lanpostua hutsik zegoela esan bazuten, izango zela oso-oso pozik ez zeudelako Echeverríarekin, apika ermitan egin zuen lana ez zelako izan espero bezain fina -ez zaigu iruditzen, izen-abizenak berdinak izan arren, Esteban de Echeverría hau lehen karguan hiru hamarkadaz egondako bera izango zenik-. Bestalde, 150 errealeko kontraeskaintza egin zuen Barcaizteguik, honela ordaintzeko: 50 erreal ermitarako arropa zuritan, 50 erreal hautatua izan eta bi hilabetera, eta gainerako 50 errealak bi urte igarotakoan. Berme gisa, Antxetako etxea jarri zuen, Urnietan kokatua, bere baratze, lursail, sagasti eta guzti. Bien artean bat aukeratzeko buruhausteak konpondu ezinik, erregidoreek Manuel Ygnacio de Egurza lizentziadun donostiarrarengana jo zuten, eta bi memorialak erakutsi zizkioten, iritzia eman zezan. Alabaina, erraztu beharrean, are gehiago korapilatu ziren kontuak, legegizonak esan baitzien ermitako maizter berria nor izango zen erabaki baino lehen, Martín de Toledorekin eta lekukoekin hitz egin beharra zegoela.

Lau gizon joan ziren lekuko gisa: Nicolás de Arrazain, Matheo de Aiesta -ermitauaren etxeko maizterra-, Félix de Larranza eta Bentura de Tholosa. Lauek esan zuten Toledok utzita zeukala ermita, eta arlote baten moduan ibiltzen zela limosna eske Donostiako San Bartolome eta San Frantzisko auzoetan, Irunen eta Pasaian; eta lekukoren batek ermitara itzularazteko ahalegina egin arren, ez zuela gizonak kasurik egin. 1766ko azaroaren 5ean, iragarki bat jarri zuten elizaren atean: Toledori agintzen zioten ager zedila udaletxean sei egun baino lehen. Ez zen agertu. Azaroaren 11n, bigarren deia egin zioten; aldi hartan ere ez zen agertu. Hilabete bereko 19an, auzi-iheslari izendatu zuten ofizialki, eta, beraz, kargugabetu egin zuten. Hori argitu ondoren, erregidoreek Gotzaindegiaren esku utzi zuten ordezkoa izendatzeko ardura. Hala, 1767ko urtarrilaren 13an, Esteban de Echeverría hernaniarra izendatu zuten ermitau.

MANUEL DE MADARIAGA: 1810eko abenduaren 5ean, Manuel de Madariaga hernaniarrak errentan hartu zituen Santa Barbarako ermitako logela eta lurrak, urtean 4.040 errealen truke, lau urterako. Ermita zaintzea eta kanpai-jotze tradizionalak egitea zituen eginkizun.

Gaur egun, JOSUNE AZKOITIA ARREGUI eta JUSTO ARREGUI IZAGUIRRE senar-emazteak arduratzen dira ermita berria zaintzeaz. Santa Barbara baserrian bizi dira, garai batean ermita zegoen lekuan.

KONPONKETA-LANAK

Ulertzekoa denez, hain leku gailenean egonik, haizea eta euria bete-betean jasoz, konponketa ugari behar izan ditu ermitak.

Badakigu 1609an teilatu osoa berritu ziotela eta Udalak 49,5 erreal ordaindu zituela, ermitak garai hartan ez baitzuen gastu hori ordaintzeko dirurik.

1634ko maiatzaren 21ean, ermitako itoginak lehenbailehen konpontzeko erabakia hartu zuen Kontzejuak; izan



ere, zulo edo pitzadura haietatik iragazitako urak usteldu egin zituen frontalak, eta oso kaltetuta utzi zituen aldareak. Urte hartan bertan, gero 1650ean, eta, batez ere, 1687an, konponketa gehiago egin zizkioten ermitari.

1708an, erregidoreek txukunketa-lanak egitea erabaki zuten, eta kanpai berri bat ere eskatu zuten ermitarako.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.9. Fol. 20 v.)

Antza, elizatxoa narriatzen joan zen pixkanaka. 1800ean, ezin zen ermita hartan elizkizunik ospatu. Urte hartako apirilaren 27an, azterketa bat egin zuen Udalbatzak, gurtza publikorako eskubidea berreskuratu ahal izateko egin beharreko konponketa-lanen kostua zenbatekoa izango zen jakiteko.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.11. Fol. 192 v.)

1805ean, Elizak oniritzia eman zuen. Hartara, Napoleonen tropek eragindako kalteak konpondu ostean, meza emateko eta kanpaiak jotzeko baimena lortu zuen ermitak. Nolanahi ere, 1819an indargabetu egin zuten baimena, ermitak Sakrifizio Santua ospatzeko behar besteko txukuntasuna eta duintasuna ez omen zituela eta.

1856ko urtarrilaren 20an, Santa Barbarako ermita oneratzeko eta konpontzeko obra enkantera ateratzea erabaki zuten, eta ordura arte ziur asko Parrokian egongo zen irudia hara eramatea.

Oso bestelako kontuak dira inguru horrek gotorleku gisa emandako urteak, eta garai haiek herriaren historian eta ermitaren beraren bilakaeran izandako eragina. Antza denez, 1697an hasi ziren inguru hori defentsa armaturako egokitzeko aukera aztertzen. Hala ondorioztatzen da, behintzat, urte hartako maiatzaren 14an Bernardo Gorrochateguik aurkeztu zuen memorialetik. Santa Barbarako logelaren eta lurren errentaria zen Gorrochategui, lau urterako, urtean 18,5 peso ordainduta. Dirudienez, frantsesak 1695eko irailean erretiratu ostean, Juan Jiménez Donoso ingeniari nagusia ingurua nola gotortu aztertzen hasi zen *(delinear, graduar y mensurar no solamente el monte de Sta. Bárbara sino también todas las alturas y partes de su circuito")* eta lurrak lantzeari uzteko eskatu zion Gorrochateguiri. Azken horrek erregidoreengana jo zuen babes bila, baina ezin izan zuten haren alde ezer egin. Orduan, errenta ordaintzeko beharretik salbuesteko eskatu zuen Bernardok, denbora batean ez baitzuen lursaila erabiltzerik izan. Udalak, eskaera aztertu ondoren, urtebetean errenta ordaintzeko beharretik salbuetsi zuen gizona.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.11. Fol. 160.)

Dena den, 1793an Santa Barbararen goialdea gotortzea erabaki zuten. Hala, azaroaren 17an, eskulana, zalgurdiak, zama-abereak eta eraikuntzarako materiala eskatu zizkion Diputazioak Hernaniri. Muino hura gotorleku militar bihurtzera zihoazen.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.11. Fol. 122)

Badakigu 1842an tropak zeudela bertan eta frankizia eskatu zutela.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.15. Fol. 17 v.)

Abenduaren 31n, 561 erreal ordaindu zizkioten Micaela Ignacia de Yarzari, dendetan edo behe-solairuetan bizi ziren herritarren artean banatzeko, beren gelak gobernadore militarrari eta Santa Barbarako gotorlekura joandako ofizialei utzi behar izan baitzizkieten.

Santa Barbarako gotorlekuaren aldi militarrari buruzko kontuekin amaitzeko, hona hemen 1854ko pasarte bitxi bat:



"Habiendo varias quejas de que los soldados del destacamento de Santa Bárbara bajan a robar manzanas a los manzanales contiguos a dicho fuerte, se acuerda (por parte del ayuntamiento) elevar la queja oportuna a su Sr. Governador".
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.15. Fol. 269 v.)

Ermitari buruzko garai berriagoetara etorrita, esan dezagun JUSTO EIZAGUIRRE RECONDO, Akerregi baserrian jaioa, Marraka baserriko familiaren alaba batekin ezkondu zela, eta hara joan zela bizitzera. Sei seme-alaba izan zituzten, eta 1934an Santa Barbarako ermita zaharrera joan zen familia osoa bizitzera. Ermita suntsituta zegoen erabat.

Zortzi mila pezetaren truke erosi zuten lursaila, baserria barne. Zehazki 8 goldekoa zen lursaila -goldea 3.333 metro karraturen azaleraren baliokidea da-.

Gerra Zibilean, etxetik kanpora bota zuten Eizaguirre sendia, eremua gune militar bihurtzeko. 1938an itzuli ziren, baina kiskalita aurkitu zuten etxea. Hortaz, berriro berreraiki behar izan zuten etxea. Gogoan izan ermita zegoen lekuan baserriaren ukuilua jarri zutela -gaur egun jatetxeko jantokia dagoen lekuan-, eta sakristia zegoen lekuan taberna.

1955ean inauguratu zuten Santa Barbarako ermita berria, mendiaren gailurrean kokatua.Horretarako, auzolanean jardun zuten herritarrek, materiala ematen batzuek, eskulana eginez beste batzuek.

JABETZAK


Jada aurreratu dizuegun bezala, oso ohikoa zen hernaniarrek, testamentuan, herriko ermitetarako diru pixka bat uztea. Dohaintza gehien jasotzen zituztenak Zikuñagako Amaren emita eta Santa Barbarako ermita ziren. Hernaniko aurrenekoetako testamentu batek, jada aipatu dugun María López de Galarretak 1529ko urriaren 5ean egindakoak, bi erreal utzi zituenaipatutako ermita bakoitzerako; horrez gain, beste bi erreal Sastigako San Martineko argiontzirako, lau Guadalupeko Amarentzat, eta dukat bat ospitalerako. Urnietar batzuek ere egiten zuten testamentuan ermitatxo honetarako dohaintzarik.

Lursailak errentan ematea ere diru-iturria zen ermitarentzat. Adierazi dugu goraxeago zer elikagai eskuratzen zituzten baratzean. Gehienetan, ermitauak lantzen zituen ermitaren lurren ondoko kontzejuaren bi golde-lurrak, urtean bi dukaten truke.

Hernanik bazituen gaztainadi publiko batzuk ere. Urtero-urtero, enkantean ateratzen zituzten haien fruituak, sei lotetan, hain zuzen ere sei eremutan baitzeuden gaztainadiak: Osinagan, Elorribian, Sansanategin, Erratzun, Orkolaganeta Santa Barbaran.

1857an, hesitu egin zituzten ermitari zegozkion lurrak, Arrikarte aldetik ardirik sar ez zedin *(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.16. Fol. 24 v.).* Urte hartako urriaren 18an, bestalde, enkantera atera zuten mendiaren Urnietara aldeko eremua ixteko lana.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.16. Fol. 29.)

1723an, ermitau berri bat hasi zen lanean, eta inbentariatu egin zituzten ermitan gurtza erlijiosorako zeuden objektuak. Oso balio gutxikoak ziren guztiak, neurriz ere txikitxoa baitzen ermita, eta hirigunetik aldendua baitzegoen.



Azkenik, nabarmentzekoa da Hernaniko Udalak, duela urte batzuk, Santa Barbarako paisaia eta arkitektura garatzeko ahalegina egin zuela, eremu hori urte luzez utzita egon eta gero. Horretarako, lehenik eta behin txosten bat egiteko eskatu zion Landa eta Lurralde Ikaskuntzarako HOSTOA Elkarteari, Santa Barbara gotorlekua berregokitzeari begira. Txosten horrek hainbat alderdiri buruzko xehetasunak jaso zituen: alderdi naturalak (ezaugarri geologiko, klimatiko eta botanikoak), aisia-alderdiak, alderdi didaktikoak eta alderdi historikoak; eta horiek guztiak aintzat hartu zituen jarduketa-proposamen bat jaso zuen.

5 SANTA MARIA MAGDALENAREN ERMITA
(Desagertua)

IZENA
Santa Maria Magdalena.

PARROKIA
Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokia-eliza.

KOKAPENA
Kale Nagusiaren mutur batean zegoen, San Agustin komentutik gertu.

Altitudea: 20 metro, itsasoaren mailatik gora.
Koordenatuak: x = 1° 42' 55" / y = 43° 16' 00"

DESKRIBAPENA
Ospitaleak 300 metro karratu inguruko azalera zuen, herriaren alde zaharrean oraindik ere badauden etxeen modura. Behe-solairua, lehen solairua edo bizilekua, eta ganbara zeuzkan. Lehenengo solairuan, ospitaleaz gain -gela txiki asko zeuzkan; segur aski, ohe bakar bat sartuko zen haietako bakoitzean, eskritura batean jasotakoaren arabera hamazazpi ate baitzeuden lehen solairuan, eta, gero ikusiko dugun bezala, hamar ohe zenbatu baitzituzten 1717an-, eskolako maisuaren sukaldea zegoen -eta, ziurtasun oso baieztatu ezin dudan arren, nik esango nuke bizitzeko gela ere bazuela hor-. Solairu horretako areto nagusian herriko eskola zegoen, kanpora ematen zuen leiho handi batekin.

Eraikin berria egin artean, Udalbatzak han egin zituen bilerak, eta gerora ere bai, konturen bat edo beste zela eta bilera udaletxean egiterik ez zuenean. Behe-solairuan Santa Maria Magdalenaren kapera edo ermita zegoen, bere zurezko koru txikiarekin, balaustrada biribilduarekin, eta presbiterioa gainerakotik bereizten zuen harrizko mailadiarekin.

IKONOGRAFIA
1735ean, kontu-hartzailea Okendo kapitaina zen garaian, Santa Maria Magdalenaren irudi bat ekarri zuten Cádizetik, tunika, ileorde eta guzti. Kobrezko 3.120 errealeko kostua izan zuen.



ELIZKIZUN, ERRITU ETA OSPAKIZUNAK

Ez daukagu halakoen berririk.

HISTORIA

JATORRIA

Elizatxo honi buruzko aipamena jasotzen duen testurik zaharrena ospitalea 1679an berreraiki zutenekoa da. Francisco de Erauso erretore hernaniarrak, Kontzejuaren proposamenaren berri izatean, elizatxoa ere berreraikitzeko eskatu zuen, eta baiezkoa eman zioten.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Francisco de Aguirre. Leg. 1222, fol. 138.)

Horri esker, badakigu 1679a baino lehenagotik zegoela ermita. Adierazi dugu jada María López de Galarretak, Martín Aranode Ayerdiren alargunak, besteak beste nafar dukat bat utzi zuela dohaintzan ospitalerako, 1529an egindako testamentuan. Litekeena da ospitalean ordurako Magdalenaren omenezko kapera edo ermitarik egotea.

PATROIAK

Hernaniko Udala zen herriko ospitale publikoaren jabe eta kudeatzailea, eta, beraz, Udala bera zen kaperatxoaren patroia ere.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Francisco de Aguirre. Leg. 1222, fol. 138.)

SERORAK ETA ERMITAUAK

Kasu honetan, Udalak izendatutako ospitalarioek betetzen zituzten diakonisei eta ermitauei zegozkien ohiko eginkizunak, bai ospitalean eta bai ermitan. Ospitalarioak eskubidea zeukan auzoan diru eske joateko, ospitalean artatutako jendea zaindu ahal izateko. Horrela, arratsaldero, herrigunean kalez kale ibiltzen zen ospitalarioa, dunba astintzen, eta ozenki hildakoen arimen aldeko otoitza eskatzen. Eginkizun hori betetzeko, bi dukat jaso zituen 1620an Bernart de Oraa ospitalarioak.
(Hernaniko Udal-Artxiboa A.1.5. Fol. 11.)

Udalak sukaldean aritzeko eta neguan egoitza berotzeko behar zen egurraren kostua ordaintzen zuen, besteak beste.

KONPONKETA-LANAK

Ospitalean 1679an egindako zaharberritze-lanak Sebastián de Zavalegui arotz hernaniarrak egin zituen. 1676ko irailaren 29ko eskritura baten bidez, lanak bi urteko epean amaitzeko konpromisoa hartu zuen, adituek zehaztutako kopurua baino ehun dukat gutxiagoren truke, dukat horiek limosna gisa emateko.

Obrak amaitutakoan, 1680ko otsailaren 5ean, kontuak egin zituzten: 5.402 erreal eta marabedi bat arotzerian; 1.516 erreal eta 1/4 hargintzan; 2.508 erreal arotzeria txikian (ateak, leihoak eta abar), eta 1.728 erreal igeltserotzan. Guztira, 11.054 erreal eta 9 marabedi. Kontzeju-etxe zaharreko egur eta harri guztiak aprobetxatu zituztenez -berria egiteko eraitsi egin baitzuten-, adituen ustez 5.158 erreal aurreztu zituzten orotara materialetan.



1866ko urriaren 6an, Antonio MuruakTxantxilla izeneko lursail bat erosi zion Ceferino Urieni -kanposantua eta auzo-bidea zituen mugakide-, neurriz 36 areakoa eta 92 zentiareakoa. Hernaniko ospitale berria bertan eraiki zuen -«jaioterria maite zuelako», haren esanetan-, eta baratze bihurtu zuen gainerakoa.
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Juan Manuel de Soroa. Leg. s/n. Año 1868, fol. 490.)

Geroago, 1868ko uztailaren 31n, Muruak 25 urteko Vicente Ubiria e Irízar ferratzaileari saldu zion ospitale zaharraren etxea, kobrezko 16.000 errealen truke. Hobekuntza batzuk egiteko agindu zion: «*dar la misma altura que la que tiene la casa antigua de Dn. Félix Santo Domingo, poner tres barandillas en el primer piso, tres balcones iguales a los que tiene dicha casa de D. Félix en la segunda habitación y a hacer por la parte que mira a la casa o fábrica de D. Antonio María Lizarraga, en lo que se trata de elevar, ventanas iguales a las que anteriormente existen*».
(Oñatiko Protokoloen Artxiboa. Eskrb. Juan Manuel de Soroa. Leg. s/n, fol. 557. Año 1868.)

1868ko apirilaren 21ean, Madrilen, Estatu Kontseiluak baimena eman zuen, Hernaniko ospitale zaharretik berria aldatzeko, zaharra ordurako ez baitzegoen egoera onean. Berria, ordea, muino batean zegoen, aireztapen ona zeukan -garai hartan, balio handia ematen zioten aireztapen egokiari-, udalerritik gertu zegoen, sobera zeukan lekua, eta baratzea ere bazeukan. Ospitale zaharraren balioa 21.895 erreal eta 62 zentimokoa zela kalkulatu zuten; berriarena, 99.262 erreal eta 16 zentimokoa.

Ospitale berriari buruzko dokumentuetan, aipatu ere ez da egiten ermita. Parrokia-eliza handik gertu zegoenez, segur aski horrek beteko zituen kaperatxo zaharraren egitekoak.

Geroago, Mirarietako Amaren Kapera egin zuen ospitalearen ondoan. Oraindik ere hortxe dago, baina jada ez zaio erabilera liturgikorik ematen.

JABETZAK

Azken borondateen liburuetan, ospitalera zuzendutako hainbat legatu eta dohaintzadaude jasota. Nolanahi ere, haietan ez zen esaten zehazki Magdalenaren kapera edo ermita izango zela haien onuraduna, ospitalea oro har baizik. Funts horiei eta ospitalariek postulazioetan bildutako diruari esker moldatzen zen ospitalea; dena den, egoera larrietan, laguntzaematen zion Udalak.

Bada ezohiko kasu bat, 1759an gertatua: Joseph Antonio de Zabalak 4.000 pesoko dohaintza bat bidali zuen Perutik, diru horrekin ohe-arropa erosteko ospitalera joaten ziren behartsuentzat, eta ermitako aldarea apaintzeko.
(Iruñeko Gotzaindegiaren Artxiboa Leg. 1670/26.)

Ospitaleak baratze txiki bat zeukan atzealdean; lekaleak lantzen zituzten han.

Irudipen hauxe jaso zuen Iruñeko gotzainaren ordezkariak, 1745eko azaroaren 25ean elizatxoa ikustera joatean:

"Esta Basílica se alla mui decente y tiene todos los ornamentos para decir Missa, como también cáliz y vinagreras; faltan las sacras y las dos tablillas del lavabo y evangelio de San Juan".

Xehetasun gehiagorik ez zuen eman. 1819ko irailaren 13an egindako bisitaren ostean, hauxe idatzi zuten:



"Que en la de Santa María Magdalena que la ara se saque unas cuatro o seis dedos más fuera del frontal para ebitar el que el sacerdote deje la Sagrada Hostia inadvertidamente fuera de ella y que el rejado de madera se le hagan unas ventanas para poderse cerrar cuando haya de celebrarse evitando así el que perturben los viajeros y demás al celebrante y del modo en que deben hacerse se halla informado Dn. Agustín Yturriaga de quien pueden valerse"

